

Toti Martínez de Lezea



MARIA GALANTA, ABADESA

MARIA GALANTA, ABADESA



© Alberto Albizu

Toti Martínez de Lezea, Gasteizen jaio zen, 1949an, eta Larrabetzun bizi da, Bizkaiko herrixka batean. Kukubiltxo antzerki taldearen sortzaile izan zen, eta itzulpen lanez gainera, gidoiak, hezkuntzako bideoak eta telebistarako haur saioak egin zituen, 1983 eta 1992 urteen bitartean.

1998an argitaratu zuen lehenengo eleberria: *La calle de la judería (Judu-kale)*. Haren ondoren etorri ziren: *Las torres de Sancho (Antsoren dorreak)*, *La herbolera (Kattalin)*, *Señor de la guerra, La abadesa (Maria Galanta, abadesa)*, *Leyendas de Euskal Herria (Euskal Herriko leiendak)*, *Los hijos de Ogaiz (Ogaiztarrak)*, *La voz de Lug*, *La Comunera*, *El verdugo de Dios*, *La cadena rota (Hautsi da katea)*, *Los grafitis de mamá*, *A la sombra del templo*, *Brujas (Sorginak)*, *La Brecha*, *El jardín de la oca*, *Placeres reales*, *La flor de la argoma (Otalorea)*, *Perlas para un collar (Ángeles de Irisarriekin batera idatzitakoa)*, *La Universal*, *Veneno para la Corona (Pozoia Koroari)* eta *Mareas (Urak dakarrena)*.

TOTI MARTÍNEZ DE LEZEA

MARIA GALANTA, ABADESA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenetako kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

*Liburu honen argitalpenak Hezkuntza, Kultura eta Kiral Ministerioko laguntza izan du,
Liburutegi Publikoetan utzi ahal izateko, Jabetza Intelektualaren Legearen 37.2 artikuluan aginduta dagoenaren arabera.*



Jatorrizko izenburua:

La Abadesa

Azala eta bildumaren diseinua:

Aritz Albaizar

Maketazioa:

Erein

Itzulpena:

Rosetta Testu Zerbitzuak

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2013

ISBN: 978-84-9746-820-6

L. G.: SS-1326/13

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Edurneri

*Pako, Karmen, Anjel, Paulo eta Kontxirentzat,
eman didaten laguntzaren eta sostenguarien esker onez*

Valladolid

Tordesillas

Medina
del Campo

Madrigal

Bilbo

Urduña

Gasteiz

Burgos



Bilbo, 1476ko uda

Toda Larrea, bere etxeko, Harategi Zaharreko kantoiko Etxeberri dorretxeko leihora atera zen erregearen segizioaren sarrera ikustera.

–Badatoz! Badatoz!

Haren oihuak entzunda, ama eta anaia etorri eta plazara jotzen zuen leiho estuan lekua hartzen saiatu ziren.

–Kontuz, Toda! –esan zion andre Maiorrek, alabak gorpuzaren erdia leihotik kanpoan zuela ohartuta.

Pedro anaiak gerritik heldu eta oinak lurrean jartzera behartu zuen.

–Hor dator erregea!

Don Fernando, Aragoiko erregegaia eta Gaztelako ezkontza bidezko erregea, hirian sartzera zihoan, bere emaztearen izenean Foruen zina egiteko. Bere bizitzako hamabost urte gazte haietan Todak ez zuen inoiz ezagutu horren gertaera handirik, baina ez zen urduri zegoen bakarra, hala ere. Herri guztia zegoen urduri, arrazoi bat zela edo bestea zela. Agintariak, erregea Bilbora etortzea zelako gerta zitekeen gauzarik

handiena; leinuetako buruak, zeinek bere pribilegioak irabazi nahi zituelako; merkatariak eta dendariak, ospakizun haietan irabazi handiak egitea espero zutelako; eta herria, oro har, egun batzuetan miseriak eta larritasunak ahaztu eta udalaren kontura jaiak ospatzeko, dantza egiteko eta edateko aukera izango zuelako.

Interes-borroka latza eta gogorra izan zen. Leinuek liskar bortitzak izan zituzten Don Fernandori egin beharreko on-gietorria nork antolatu erabakitzeko. Alferrik izan ziren hiri-bilduko alkateek eta zinegotziek, eta hiribilduaren gobernuan lehiatzen ziren alderdi bietako kide zentzudunek eta neurritsuenek kiderik sutsuenak sosegatzeko egin zituzten ahalegin guztiak. Eztabaidak kalera, tabernetara, plazetara, denetara atera ziren, eta egunero izaten zen iskanbilaren bat, liskarren bat, zaurituren bat, eta inoiz hildakoren bat ere bai, ganboatarrek eta oñaztarrek elkarri zioten herra mingotsarengatik.

–Edozein aitzakia aski dute –komentatu zuen Pedro Larreak amarekin eta arrebarekin– beren interes nagusia lurralde honen onura izan beharko luketen bizkaitar jauntxo hauek aspaldiko belaunaldi hauetan elkarri dioten ulertu ezinezko gorroto horri bide emateko.

Bera ere parte hartua zen liskar haietako batzuetan, bere ahaideen aginduak, Larreatarrak partaide ziren leinuko Ahaide Nagusi ahalguztiduna zen Tristan Diaz Legizamongoarenak batez ere, betez. Hark esana legea zen, eta inolako zalantzarik gabe betetzen zuten haren banderapeko guztiak, ohoreak eta izen onak baino askoz ere garrantzi handiagoa zuten beste interes batzuk zeudelako jokoan. Muga-zergak eta erbesteko herrialdeekiko merkataritzako zergak, salgaien eta burdinoletako produktuen igarotze-eskubideak, bidesariak, zubisariak, ontzien sarrera-irteerak eta beste hainbat zerga;

errentak kobratzea, meatzeak ustiatzea, karguak eta pribilejioak eskuratzea, pribilejio-agiriak, igaro-baimenak eta gaine-rako eskubideak; erregearen baimena behar zen horietarako guztietarako. Eta horixe nahi zuten Bilbon kokatuta zeuden Ahaide Nagusiek. Baimen gehien zutenak besteak baino aberatsagoak izango ziren, eta haiek izango ziren ahaltsuenak, orobat. Halaxe izan zen beti, eta halaxe izango ere, edozein arraza edo herritako gizonen artean.

Orduko hartan oñazarren alderdia izan zen garaile. Legizamón, Butroé, Arbieto, Arbolantxa eta beste handiki batzuek, leinu-buruak denak, hartu zuten erregeari ongietorria egiteko ospakizunak antolatzekeo ardura. Ehunka kapoi, oilo, antxume, lupia eta urraburu erosi eta gazitzeko agindu zuten; ogia eta gozokiak egiteko espeziak, eztiak ekartzeko; ekartzeko era guztietako fruituak, gordinak eta egosita jateko; arrautzak, esnea, sagardoa; eta upelka ekarri zuten ardoa Errioxatik, Bordeletik eta Arroxelatik. Jaurerriaren kontura, jakina. Don Fernando Arbietoko dorrean ostatatuko zen, eta jaiegunak izango ziren printzeak hiribilduan igaroko zituen guztiak. Zeremoniak, su-festak, dantzak, jolasak eta halako pertsonaia goititu batentzat duina iruditzen zitzaizkien guztia antolatuko zuten. Ospakizun haiek bizi izandako inork ez zuen ahaztuko kristandadeko printzerik ahaltsuenetako bat ezagutu zuenik.

–Han! Han!

Zurumurru bat entzun zen ikusleen artean. Halabardarién, oinezko eta zaldizko soldaduen, erregearen ikurrinak zeramatzen ezkutarién ondoren, Don Fernando azaldu zen, arabiar zaldi eder baten gainean, erreinuko handikiak lagun zituela. Hogeita lau urte zituen, eta bi erreinuko, oinordeko printzea zen Aragoiko erreinuko eta ezkontza bidez errege zen Gaztelako erreinuko gizonik erakargarrientzat zeukaten.

Egia zen gizonik apalena ere erakargarria izango zela belusez, urrezko hariz brodatutako lorez apaindutako jupoï gorri-ilun bat, haren azpian lihozko alkandora zuri bat, esku-muturrak eta lepoa parpailaz apainduak, belusezko galtzak, jupoïarekin ongi egokituak, eta botinetan zilarrezko ezproiak, bular gainean urre lodizko kate bat, eta buruan kapela lumaduna, perlaz apaindua, jantzita agertzen baldin bazen. Soldadu garaiezina eta gobernari maltzurra zelako ospea ohe-kontuetara zalea zelako fama-ekin batera zihoan, eta ez zen oso gauza segurua haïtatik zerk erakartzen zituen gehiago, bai gizonak bai emakumeak. Haren aurretik zihoazen morroiek zilarrezko eta kobrezko diruak jaurtitzen zituzten jendearen artera; herritarrek suhartasun- ezko oiñuak botaz hartzen zituzten opari haiek.

Todak ezin izan zuen luzaroago itxaron, eta eskailetan behera oldartu zen, segizioa hurbilagoatik ikusteko. Ez amaren deiek, ez Andresa, hezitzaileak, gelditzeko egin zuen ahaleginak, ez zuten gelditu. Printzea zalditik jaitsi baino lehen plazan zegoen, jendetzaren artean bidea zabaldu nahiz. Atzapar sendo batek heldu zion besotik.

–Jakín al daiteke nora zoazen?

Neska haserretuta biratu zitzaion; haserrea irribarre bihurtu zitzaion, ordea, errieta egiten ari zitzaion gizona bere senargaia, Martín Santxez Arana zela ohartu zenean, bera baino bi urte zaharragoa baizik ez zena.

–Ikusi duzu, Martín? –erantzun zion, berak ere galdetuz, hobeto ikusteko oin-puntetan jarriz–. Ikusi duzu inoiz honen gauza harrigarrik?

–Hau ez da hilabete gutxi barru ezkontzekoa den dama gazte batentzako lekua –erantzun zion mutilak, garratasun itxura egin nahiz.

–Utzi alde batera erretolika horiek! Honelako ospakizunik ez da luzaroan berriro izango. Ea hurbilago sartzerik badugun!

Martin Santxez Aranak neskari utzi zion gidatzen. Emazte izateko izendatu zioten neska oldartsu hari ezin zion ezer ukatu. Txiki-txikitandik ezagutzen zuten elkar eta, Martin gogorutzen zelarik behintzat, beti izan ziren elkar maiteak. Beren familiek elkarrekin ezkontzeko izan zuten zorioneko ideia hura bizitza bera bezain normala iruditzen zitzaien. Hara eta hona bultza eginez, Denda-kaleko atariaren aurrean ospatzen ari zen zeremonia ikusteko txoko bat egitea lortu zuten. Don Fernandok Foruen zina egin zuen; zin haren bitartez, Gaztelako erreginaren izenean hitz ematen zuen Bizkaiko askatasunak, usadioak eta ohiturak zintzo beteko zituela; hiribilduko giltzak eman zitzaizkion, eta zarata gorgarri bat zabaldu zen alde guztietan. Andre Isabel Bizkaiko Jaurreriko Andre Nagusitzat aitortzen zen handik aurrerako, eta mendekoek leialtasun-zina egiten zioten. Martinek eta Todak, zarata eta iskanbila hartaz baliatuz, elkarri eskutik heldu eta maitasun-hitzak xuxurlatu zizkieten elkarri belarrira. Elkarren gorputzak ukitzeak elkarri maitasun-adierazpen sutsuagoak egitera bultzatzen zituen, baina maiseaketarako biderik ez zen eman behar, eta elkarri irribarre egitera mugatu ziren, zeremoniari arreta handirik jarri gabe.

Tristan Diaz Legizamon ari zen zeremoniaren buru, Bilboko korrejidorearekin, alkateekin, zinegotziekin eta handikiekin batera, baina bere harrotasunaren bidez garbi utzi zuen une hartan berak agintzen zuela, berak bakarrik, hiribilduaren gobernuan. Zin egitearen eta haren ondoren izan zen eskumuinen ondoren, segizioa udaletxera joan zen zuzenean; aspaldiko urteetan halakorik ezagutzen ez zen bankete bat zeukaten prestatuta.

Bizkaiko gizon eta emakume nagusi guztiak gonbidatu zituzten, baita Zurbaran, Basurto, Abendaño eta ganboatarren alderdiko beste buruzagi batzuk ere; nahikoa urruti jarri zituzten, printzearengana zuzenean iristeko modurik izan

ez zezaten, era horretan Jaurerriko gauzetan egiazko eragin gutxiago izan zezaten. Bostehunetik gora bazkaltiar izan ziren. Hamar sukaldari eta ezin konta ahala laguntzaile eta sukalde-mutil ari ziren platerak prestatzen, eta oñaztarren aldeko familiarik ospetsuenetako neska gazteek ateratzen zituzten mahaietara. Toda zen, besteren artean, zerbitzarietako bat.

Bankete hartan ikusi zuen Don Fernandok. Gauza jakina zen zein emakumezalea zen, edozein mailatako emakumeak zirela ere. Nora ere zihoan, bera baino lehen iristen zen hara maitale sutsua eta nekaezina zelako fama, eta haren abenturak maiseaketari eta herritar guztien solasgai bilakatzen ziren. Emakumeekin izaten zuen arrakastak, bere gizontasunaren erakusgarritzat harturik, inbidia eta miresmena sortzen zuen gizonezko zein emakumezkoengan. Zerbitzatzen ari zitzaion neska hain mardula, hain alaia eta polita ikusi eta haren apeta sortzea gauza bat izan zen. Zerbitzatzera etortzen zitzaion baikoitzeko, ez zuen aukera galtzen zurikeriaren bat esateko, eskutik heltzeko, gerritik besoaz heltzeko.

Todak barre egiten zuen, beti bezala, eta Martinengana jotzen zen; hark, aretoaren beste muturretik, ez zion begirik kentzen, eta erregearen keinuak amultsuagoak bihurtu ahala, geroz eta gehiago muturtzen eta muzintzen zen hura.

Kanpoan, plazan, olgetan, kantuan eta dantzan ari ziren herritarrak, dultzainaren eta danbolinaren doinuak lagundurik. Barruan, bazkaria bakanal baten itxura ari zen hartzen, hango beroagatik, jakien gozagarriengatik, bazkaltiarren edalontzi hutsetara behin eta berriro isurtzen zen ardo, sagardo eta bestelako edarien oparotasunagatik. Don Fernandok bere buruaren jabe jarraitzen zuen, jaten eta edaten neurritsua zelako; baina ez zion begirik kentzen Todari, hark, beroak beharturik, atorra zabaldu eta agerian baitzuen bular gazte, txiki eta tinkoen hasiera.

Printzearen interesa ez zen nabarmendu gabe geratu. Tristan Diaz Legizamonek erregearen keinu eta mugimenduak ohartzen zituen, haren begiradari jarraituz. Berehalaxe ohartu zen Don Fernandok bere ahaide gazte hura ezagutu nahi zuela. Nahi hura betetzeak berari eta bere leinuari mesede handiak ekarriko zizkiela iruditu zitzaion, eta ez zebilen oker. Zilarrezko platerean eskaintzen zitzaion aukera hura –eta zilarrezkoa, hain zuzen– ezin zen alferrik galdu. Banketea bukatu zenean, Todari aretoaren ondoko gela batera deitu zion; aretoa poliki-poliki husten ari zen, bazkaltiarrek ateratzen ari ziren, ibaiaren beste aldetik, Bilbo Zaharretik bota behar zuten su-festa ikusiz digestioa egiteko asmoz.

–Toda –hasi zen bestelako solasik gabe–, erregea oso gustura dago eskaini diogun banketeagatik eta, gehiago oraindik, zu jo zaitu begiz. Hori ohore handia da, inguruan erreinuko emakumerik ederrenak edukitzen ohituta dagoen pertsona baten aldetik etorrita.

Neskak irribarretxo lauso batez entzuten zion, beregandik zer espero zen oso ongi ulertzen ez zuenez.

–Nahi eta nahi ezkoa da –jarraitu zuen Legizamonek–, eta guretzat obligazioa, gure artean dagoen bitartean ahalik eta egonaldirik atseginena izan dezan ahalegintzea. Zu ezagutu nahi zaituenez, gaurko gaua Arbietoko dorrean igaroko duzu.

Toda ulertzen hasia zen zer nahi zuen bere leinu-buruak, eta txundiduraz beterik zabaldu zitzaizkion begiak.

–Gaua erregearekin igaro behar dudala nahi duzu esan? –galdetu zion zezelka.

–Horixe. Hori eginez onura handia ekarriko diozu zure familiari, eta Koroarekiko harremanak fruitutsuak eta adiskidetazkoak izaten lagunduko duzu.

–Berak agindu du?

–Ez, jakina! Erregeak ez du ezer agindu beharrik, zer nahi duen ingurukoek jakin dezaten.

–Baina... Nik ezin dut hori egin! –esan zuen higuinez beteta-. Nola proposatzen didazu horrelako gauzarik? Zu zara familia-burua eta zure ahaide guztiak babestu behar dituzu...

Tristan Diaz Legizamon ernegatzen hasia zen. Ez zegoen ohituta bere leinuko kideek bere erabakiak zalantzan jartzera, lur honetatik amen batean desagerraraz zezakeen neskatxo batek beste inork baino gutxiago. Bat baino gehiago galdu izan zen hori baino gutxiagogatik.

–Horixe ari naiz egiten –hartu zuen azaltzeko lana-, nire ahaideak eta nire ahaideen interesak zaintzen, baita zureak ere.

–Baina Martin Santxez Aranarekin ezkontzeko hitza emanda nago –tematu zen neska-. Udazkenean ezkondu behar dugu.

Negar-malkoak begietatik masailetan behera irristatzen hasiak ziren, eta zotin eta hasperen artean hitz egiten zuen.

–Gutako bakoitzak dakien eta ahal duen bezala zerbitzitzen dio familiari. –Legizamonen doinuak ez zuen erantzuteko aukerarik uzten-. Gerretan eta borroketan gure gizonak hil egiten dira edo zauriturik eta elbarri geratzen dira, beren ondasunak galtzen dituzte edo beren sailak erretzen dizkiete. Emakume baten ohoreak ez du gizon baten bizitzak adina bario, eta ez da laidoa, ohorea baizik, horren jaun goren batek aukeratua izatea.

–Ez dut horrelakorik egingo! –erantzun zion Todak haserre-. Ez naiz inoren ohea berotzeko emagaldua, nahi denik eta mailarik gorenenekoa izanda ere!

Zaplada bortitz bat izan zen leinu-buruaren erantzuna; neska hormaren kontra bota eta lurrera erorarazi zuen. Ondoren, aiztoa zorrotik atera eta Todaren masailean jarri zuen haren punta.

–Egingo al duzu! Halaxe eskatzen du egoerak eta halaxe egingo duzu, gogoz ala gogoz kontra. Ongi ulertu duzu? Bestela zure aurpegitxo polit hori itsustu eta nire soldaduen artean utziko zaitut. Ez Martin Aranarentzat ez beste inorentzat izango zara.

Legizamon gelatik atera eta atea itxi zuen; nahasmendutan eta etsimenetan utzi zuen Toda. Handik minutu batzuetara, Legizamonen konfiantza osoko zenbait gizon sartu eta Arbietoko dorrera eramán zuten.

Biharamun goizean eta hurrengo egunetan, jende guztiak jakin zuen Toda Larrea printzearen ohelagun bilakatu zela.

Denen begien bistan zegoen gauza hori. Don Fernando hiribilduan egon zen bitartean haren ondoan agertu zen, eta geroago ere harekin batera joan zen zin egin beharreko hiribilduetara egindako bidaia osoan. Ama eta anaia behin ere ezin izan ziren harengana ondoratu. Tristan Legizamonek kontrol estua jarri zion inguruan.

Bi egun geroago, Bilbotik irten eta Txorierriko Larrabetzu herrirantz jo zuen erregearen segizioak; basoz beteta zegoelako eta basoak txoriz beteta zeudelako omen zuen izen hori. Segizioak igarotzen zituen herri guztietan, herritarrak ikustera ateratzen ziren: zaldunak belusez, zetaz eta katazuri-larruz jantzita, beraiek bezain apain eta dotore jantzita zihoazen hanka meheko zaldietan; damak harribitxiz eta luxuzko jantziz, batzuk zaldiz, beste batzuk segizio horretan parte hartzeko oihal finez eta kuxin handiz jantzitako zalgurdi irekietan; elizgizonak abitu zuriz, beltzez, marroiz, grisez jantzita eta burua soildurik; pajeak eta soldaduak; segizioaren aurretik, atzetik eta alboetan danborraren doinuari jarraituz zihoazen dozenaka soldadu. Baina Don Fernandok eragiten zien zirrarak handiena lur honetako handikirik ikusteko aukerarik inoiz izan ez zuten herritar eta nekazari haiei. Damaskoko belus gorritzko kasaka

zuen jantzita, galtzekin ongi egokitzen zena; haren gainean katazuri-larruzko kapa labur bat, kapela lumaduna, harribitziz apaindua; Marokoko emirrak oparitutako arabiar zaldiaren gainean zihoan, bide-ertzetik biba eta gora oihukatzen zioten herritarrak agurtuz. Inoiz ez zuten ahaztuko une hura, eta beren seme-alabei eta bilobei kontatzeko gogoratuko zuten.

Pedro Larrea, amak Toda begien bistatik ez galtzeko aginduta, beste handizuren batzuen artean zihoan segizioaren atzeko aldean. Ahoa estututa zeraman, eta ia ez zien erantzun ere egiten bere bidelagunek egiten zizkieten galderei. Andre nagusien gurdietako batean eserita zihoan neska hura ikusten ahalegintzen zen. Herritarren gorak eta bibak entzuten zituen, baina biba eta gora haiek bere arrebaren ohorea urratu zuen gizonarentzat ez baina elkarren ondoan zihoazen bizkaitar leinu-buruentzat zirela iruditzen zitzaion. Seguru zegoen Jaurerrian hainbeste atsekabe eta oinaze eragindako liskarrak eta borrokak bukatu zirela uste zutela herritarrek. Zurbaran eta Legizamon, Butroe eta Abendaño, Salazar eta Marrokin familiak elkarrekin ikustea, horixe zen betidanik amestu izan zutena, eta bihotza pozez betetzen zien etorkizunean bakea izango zutelako itxaropenak.

Don Fernandok lehendabizi Larrabetzun, gero Gernikan eta Bermeon egin zuen foruen zina. Toda Larrea haren ondoan egon zen denbora guztian. Segizioa herritarrek omendu zezaten gelditzen zen bakoitzean, anaiak haren aurpegi zurbila ikusten zuen, eta ohartzen zen beti alai eta irribarrez eduki ohi zuen aurpegi hartan alaitasunik ez zela. Baina garbi ikusi zuen orobat nolako harrotasuna zuen, behin ere ez baitzuen bururik apaldu, ez atsekaberik adierazi ere gortesauk eta bere leinuko zenbaitek egiten zituzten solas zikinak entzunda.

Astebete baten buruan Gaztelako ezkontza bidezko erregeak Bizkaitik alde egin eta Gasteiza jo zuen. Alderdietako bat

bere laguntzaren bitartez indarturik, jaurerriaren finantzak hondoa jota, jende xehearen artean oroitzapen ezabaezin bat, eta hamabost urteko neska bat haurdun eta etorkizuna ilun zuela utzi zituen alde egitean.

Madrigal, 1510eko uda

Goiz hartan, beste askotan bezala, laudeak abestu ondoren eraikinetik kanpora atera zen abadesa, bere gelara otoitz egitera joan ordez. Bere karguaz, monasterioan gauza guztiak ordenan zeudela begiratzeko obligazioa zuela esanez zuritu nahi izan zuen bere burua, baina bazekien ez zela hori ihesaldi haietarako arrazoia. Gozatu egiten zuen bakarrik egiten zituen pasiera haietan; libre sentitzen zen une batez; sentipen hori mila puskatan desegiten zitzaion, ordea, berriro eraikinean sartu bezain laster. Dena bare zegoen; lorategiko zuhaitzetan habietan zeuden txorien txio arinek baidzik ez zuten eteten isiltasun hura, edo oilarren baten kukurrukuak, urrunxeago, eta besteren baten erantzunak are urrunago. Sultan, mojen bake-giroa inolako sarkinek urra ez zezan zaintzen zuen artzakurrak ere ez zuen atera muturra bere txokotik, bera haren etxetxoaren aurretik igaro zenean. Uda betebetea izan arren, Madrigalen goizak hozkirriak ziren, eta sosegu-aldi bat eskaintzen zuten egunean aurrera egin ahala joko zuen bero-bafada baino lehen. Arnasaldi sakon bat egin

zuen uzta moztu berrien urrina zekarren aire hartatik, hormetako harrien artean berez atera ziren basalore batzuk ferekatu zituen, eta luzaro egon zen hormaz beste aldean hedatzen ziren soroetara begira. Eguna nekagarria bihurtzen zitzaion erabateko bakartasunezko eta izadiarekin bat egiteko une haiek ez bazituen.

Ezkilak tertziatarako deia jo zuen, eta pausoa bizkortu zuen monasteriora itzultzeko. Elkar ukitu gabe, hitz bat esan gabe, kaperara zihoazen mojen artean sartu zen, koruan bere ohorezko jarlekuan eseri zen, eta buru-keinu arin batez, ofizioa hasarazi zuen.

Hogeita bost urte zeraman horma haien artean. Mojen artean oso gutxik zekiten zenbat urte zituzten. Berak, ordea, oso ongi zekien zein egunetan jaio zen, lepotik zintzilik zeraman Amabirjina ezezagun baten medaila baten atzean, bere izena, Maria Esperantza, eta data bat, 1477ko apirilak 15, baitzegoen idatzita. Hogeita hamahiru urte zituen, beraz. Erlijioaz kanpo emakume heldua izango litzatekeen arren, mojen artean gaztea zen oraindik, moja gehienak oso adin handitara iristen baitziren, bizimodu sedentario eta gorabeherarik gabeari, komentuko babes seguruari eta zer jan sekula falta ez izateari esker, batez ere. Ohore handia zen horren gazterik abadesa izatea, eta berak bost urte bazeramatzan karguan. Behin baino gehiagotan galdetu zuen bere baitarako ea zergatik eman zioten ohore hura, familia nobleetako alabentzat edo erlijioan meritu handiak egindakoentzat izaten baitziren kargu horiek, eta berak ez zuen ez batekorik ez bestekorik. Ezin zen parekatu mundu zalapartatsuaeren erdian moja sekularren etxe hura, *otium* hura sortu zuen Maria Diezekin, esate baterako, edota bere ariman Jainkoaren presentzia sentitzeko halako penitentzia eta mortifikazioak egiten zituen Matilde beatarekin.

Zergatik zegoen han? Ez zen gogoratzen. Moja batzuk jaiο berritan monasterioan bilduak ziren. Oso familia pobreetako alabak izan ohi ziren, familiek monasterioaren atean utziak, hala bizirik iraun zezaten. Baziren beste batzuk, legez kanpoko maitasunen sasiko alabak, aidak bere ohorea ez zikitzeke hara eramanak. Baina gehienak artean neskatoak zirela sartu zituzten ordenan beren familiek, eta harreman estuak izaten zituzten beren etxekeekin, gutunez edo bisitez. Berak, berriz, ez zekien ez nondik etorria zen ez nor ziren bere gurasoak. Inoiz edo behin bere bizitzako lehenengo zazpi urteak gogoratzen ahalegintzen zen, baina ezin. Monasterioko atea igaro zuen unean galdu zituen, nonbait, oroitzapen guztiak.

Ahizpa ekonomoarengan pausatu zuen begirada. Tornuko umea zen hura ere, bera bezala. Monasterioan sei-zazpi urte inguru zituztela sartuak ziren biak, elkarrekin hazi ziren, elkarrekin hartu zuten abitua eta izen bera zuten biek, ia adin bera, eta antz pixka bat ere bai, aldiari behin gogotik barre eragiten ziena. Ahizpa ekonomoa pertsona atsegina eta kontuak eramateko dohainez jantzia bazen, berak bere buruarekin borrokan aritu behar izaten zuen beti, azalmintzaren azalean sentitzen zuen jenio bizi hura, dagoeneko ezkututzen ikasia zena, kanporatzen ez uzteko. Zenbat aldiz ez zuen ezkutuan gorde bere iritzia? Zenbat aldiz ez zuen isildu behar izan egiaz pentsatzen zuena? Diziplina, otoitzak, obedientzia, behartuta ikasi zituen. Bere esku utzi izan baliote, ez zatekeen moja sartuko. Baina zer egin zezakeen familiarik ez zuen emakume bategen? Nora joan?

Mojek harridura pixka batez begiratzen zioten. Ofizioa bukatu eta bedeinkazioa eman behar ziela ohartu zen. Ironiaz pentsatu zuen moja haiek, bere kideek, otoitzean murgilduta zegoela uste izango zutela. Bedeinkatu ondoren, keinu batez, kaperatik atera zitezkeela adierazi zien. Banan-banan,

sartu bezain isilik, denek alde egin arte itxaron zuen, eta berriro eseri zen. Egunero-egunero errepikatzen zen zeremonia berbera, otoitz berak, keinu berberak, ordutegi berberak... eta halaxe, bizi bezain isilik, hiltzen ziren batzuk eta beste batzuek hartzen zuten haien lekua. Denak berdinak.

Beste moja-etxe batzuetan ez bezala, Madrigaleko Agustindarren Graziako Andre Mariaren monasterioan zehatz eta zorrotz betetzen zen San Agustinen erregelak: otoitza, isiltasuna eta obedientzia. Han ez zegoen dama handikirik, beren neskameekin, monasterioa izan ordez, bakartegi bat baizik ez balitz bezala, nahierara irtenez eta sartuz. Oso aldi behin baizik ez zen onartzen nobleziako dama handiren bat han sartzerik, alargunduta edo bizitzako beste gorabeheraren bat zela-eta, aldi labur baterako, monasterioaren zaindaritza zuen Erregearen Etxearen bitartekaritzarekin beti ere, han itxita egoteko eskaturik.

Bost urte lehenago hil zen arte, Gaztelako Isabel Erregina Katoliko txit gorenak interes berezia erakutsi izan zuen beti Madrigaleko fundazioarekiko.

“Bai emakume bitxia”, pentsatu zuen.

Aurrean ikusi zuen lehenengo aldi, haren begirada sarkorra bere gain sentitu zuen. Hamabi urte baizik ez zuen. Bestela agindu bazioten ere, begiak jaso zituen, eta haren begirada urdin, hotz, zorrotza topatu zuen, berak eskaini zion aingeruzko irribarrearen oso bestelakoa.

Erreginak ohitura zuen aldi behin Madrigalera joateko, eta bere aita Juan II.a erregearen jauregian ostatatu ohi zen. Han jaioa zen, eta egonaldi luzeak egin zituen haurtzaroan. Jauregia harro altxatzen zen Gaztelako herritxo hartan, baina urteak ziren etxe hartan inor bizi ez zela, morroi eta neskame

batzuk izan ezik. Zaindu gabez, eta erabiltzen ez zenez, batez ere, hondatzen hasiak ziren jauregiaren kanpo aldea eta barrua ere. Lorategia, behinola ederra eta lorez betea izandakoa, hormetan gora igotzen hasia zen sastraka eta belar nahaste bat bilakatu zen; sugeak eta satorrak nahierara zebiltzan haien artean. Inoiz edo behin esaten zen andre Isabelek bazuela jauregiar arduratzeko asmoa, eta gurasoekin eta anaiarekin igarotako zorionezko urteen oroitzapena zekarkion leku eder hartan bizi nahi zuela ere. Baina gaztelu eta jauregi berriak eraikitzen ziren han eta hemen erreinuaren aintza jasotzeko, eta horrek guztiak gerotik gerora atzeratzen zituen hango lanak.

Madrigalera egin zituen bisita haietako batean, bi nobizia, *bi Mariak* –hala deitzen baitzieten maitekiro mojek– ikusi nahi zituela eskatu zuen erreginak. Bera lehendabizi, zaharrena zelako.

–Hau da Maria? –galdetu zuen abadesari mintzatuz.

–Hauxe da, erregina andrea. Maria Esperantza, *Nagusia* –erantzun zion abadesak, xuxurlaz.

–Ez dirudi oso sendoa. Osasuntsua da? –galdetu zuen berriro–. Mengeleria edo hazteria du?

Abadesak mindua zirudien.

–Ez, erregina andrea. Gure nobizia guztiak osasun onean daude. Hala nahi du Jainkoak! Gure etxe honetan oso bizi-modu osasuntsua dugu, janari garbia, gorputza mugitzen dugu, lan egiten dugu, otoitz egiten dugu...

–Ez dugu zalantzarik, abadesa andrea. Seguru gaude zuk diozun bezala dela dena. Zuen baratzeak paradisua dirudi, paradisuan barazkiak lantzeko baratze bat baldin bazegoen –jarraitu zuen irribarrez, doinuan halako ironia-ukitu bat zuela.

Mojak era berean erantzun zion lasaitasuna ematen zion erreginaren irribarre hari. Gauzak bere nagusi eskuzabalari gustatzen zitzaizkion bezala edukitzea zuen ardura nagusia,

haren diru-laguntzarik gabe oso nekeza izango baitzen, zinez, monasterioko bizitza. Morroiak eta jende xehea agurtzeko ohiko keinu bat eginez, erreginak bukatutzat eman zuen bere interes-adierazpena, eta beste Maria, *Gaztea* ikusi nahi zuela adierazi zuen.

Gelatik irten baino lehen, Maria Esperantzak begirada arin bat egin zion erreginari, eta harrituta geratu zen hark ere begiratu egiten ziola oharturik. Ikara sartu zion zerbait ikusi zion begietan: gaizkinahia?, erdeinua?, gorrotoa, beharbada? Zergatik? Ordu arte inoiz ez zuten elkarrekin topo egin. Andre nagusi hark, mundu erdiaren erreginak, eta nobizia gazteak, Gaztelako komentuetan jasota zeuden beste hainbat bezalakoak, ez zuten elkarrekin lotzen zituen inolako loturarik.

Urte batzuk igaro arte ez zuen berriro ikusi erregina. Botoak egin ondo-ondotxoan, agustindarren abitu beltza zera-mala.

Andre Isabel Madrigalen egun batzuk egitera azaldu zen berriro; orduko hartan, ordea, monasterioan bertan hartu zuen ostatua. Udako beroetatik ihesi zebilen, eta bere buruarengandik eta bakerik ematen ez zioten fantasmetatik ere ihesi, beharbada. Mila laurehun eta laurogeita hemeretzigarren urtea zen. Mendea bukatzen ari zen, eta mende berria zetorren azkeneko urteetan izandako aldaketa handiak ezagutzera. Kontinente berri bat agertu zen, eta handik zetorren urrea erregeen altxorra betetzen hasia zen. Granada konkistatu zen, juduak beren jaioterritik kanpora egotzi zituzten, eta gauza bera mahometanoak ere; eta erlijio katolikoa erreinuko azkeneko zokoetaraino zabaldua zegoen; era horretan beterik geratu zen, artean haurra zela, garai hartan bere aitorea zen Frai Tomas Torquemada, gerora lehenengo Inkisidore Nagusia izango zenari, Arevalon agindu ziona. Ospitaleak, unibertsitateak eta eskolak eraiki ziren. Isabel Gaztelakoa eta

Fernando Aragoikoa mundu zibilizatu osoan ziren aintzat hartuak. Bi erreinu haien etorkizuna zalantzan zegoen, hala ere. Oinordekoa, andre Juana, erotuta zegoelako seinaleak ematen ari zen; bere amaren aldetiko amonak, Isabel Portugalekoak, gaixotasun bera izan baitzuen, gainera.

Erreginaren itxurak zirrara eragin zion. Berrogeita hamar urte inguru izango zituen, baina mugimendu astunak zituen andre zahar baten itxura zuen dagoeneko. Gizena, begien azpian poltsa handiak zituela, goiko ezpainaren gainean bibote gris baten itzala, eta saminezko keinu bat aho-ertzetan. Ilea kasketa zuri baten azpian bildurik zeukan, eta hura belo arin batez estalia; ile-xerlo gris eta zuri batzuk narras samar ateratzen zitzaizkion, haren azpitik. Aldaturik zuen garai batean bere aitorleak hainbeste haserretzen zituen janzkera distiratu eta dotore hura. Beti gustatu izan zitzaizkion luxu handiz apaindutako jantziak, Damaskoko zeta urrez brodatua, eskote zabalak, mahuka nasaiak eta barbantzuaeren tamainako harribitxiz eta perlaz apaindutako urrezko bitxiak. Orduko hartan, ordea, artilezko soineko berde bat zuen jantzita, leporaino itxitako atorra brodatu batekin. Azpian gurutze itxurako bitxitxo bat baizik ez zerabilen, eta haren azpian beloaren bi muturrak lotzen zizkion Done Jakueren Ordenako gurutzearen irudia zuen maskor bat. Oso aldatuta zegoen; begirada, hala ere, lehengo bera zuen.

“Gorroto nau oraindik”.

Mariak berriro gogoratu zuen erreginarekin izandako solasa, eta ikara sentitu zuen berriro. Hogeita bi urte zituen, eta irakurketa eta kaligrafia-arte ikasiak zituen; gai zen latinez solas egiteko, eta frantses pixka bat ere bazekien; musikagintzak ez zuen sekreturik beretzat, eta pintzelak eta luma fina erabiltzen zen, batez ere, trebea. Denbora luze samarra zeraman transkripzio zehatzak egiten, huraxe baitzen moja-komunitatearentzat

diru-bide nagusietako bat. Inprimatzea zabaltzen ari zen une berean, nobleek eta jende dirutsuak eskari asko egiten zizkieten, opariak egiteko, edo idazpuruetan letra urre-kolore, gorri eta urdin handiak eta ertzak landare eta abere irudiz eta arabesko ederrez apainduta zeuzkaten eskuizkribuzko kodize ederrak edukitzeko, besterik gabe. Lantegiko moja guztien artetik bera aukeratu zuten eskari baliotsu hura egiteko.

Abadesak opari bat eskaini nahi zion hainbeste urtez monasterioaren babeslea eta zaindaria izandako hari, eta eskuizkribu haietako bat erreginak, inondik ere, estimu handian hartuko zuela iruditu zitzaion. *Orduen Liburu* bat, Andre Mariari eskainia, transkribatzeko agindu zion, lana burutu arte bere dohainik finenak, pintzelak eta gogorik beroena erabiltzeko eskatuz.

Kodize hark ia urtebete hartu zion, eta otoitzerako eta komunitateko eginkizunetarako eman beharreko orduak kenduta, gainerako eginkizun guztietatik libre utzi zuten. Indar eta kemen guztia jarri zuen lan hartan, eta merezi izan zuen ahaleginak. Begi kritikoz aztertu zituen orrialde guztiak, banan-banan, ea akatsen bat zuen, txikiena ere, eta harrotasun handiz ohartu zen lan biribila zela, hutsik batere gabe. *Orduen Liburuak* orrialde osoko berrogeita bi miniatura eta zenbait pasartetan beste hamabi miniatura zituen. Miniatura bakoitzean Jesusen Amaren bizitzako eszena bana agertzen zen, joritasun handiz apainduta: Jaiotza, Tenpluan aurkeztea, Ama Birjinaren ikustaldia, Ezkontza, Erditzea, Heriotza, Zeruratzea... Lirioak, igebelarrak, hurriz-hostoak, orburuak, karduak, erramuak eta ezagutzen ez zituen edo berak asmatu zituen bestelako landareak nahasten ziren ertzeko zerrenda batez inguratuta zegoen irudi bakoitza. Bazterreko zerrenda haiek irudiek adina ordu kendu zizkioten ia, eta asko gozatu zuen irudimen hutsezko lorategi haiek sortuz, bere ametsetan monasterioko

hormetatik ikus zezakeen Zapardiel ibaiaren ibarraz haraindi ikustatzen zituen beste paisaia batzuk irudietara eraman nahiz.

Liburuaren azalak, sarrion-larruz bildutako oholez eginak, esmaltez eta harribitxiz, grabatuz eta urrezko bridaz apainduak, Valladolideko zilargin eta artista ospetsu batek, Frantzisko maisuak, lehendik ere erreginentzat lan bat baino gehiago eginak, prestatu zituen. Prezioa garestia izan zen, baina ez zen mojen poltsa beti urriaren kontura izan. Abadesak, izan ere, espirituari zegozkionak eta munduari zegozkionak ezkontzen trebea baitzen, zenbait andre handikik, Jainkoaren Ama Santaren, erreginaren eta beren ohorerako, erreginari egiteko opari hartan parte hartzea lortu baitzuen. Liburuaren eskaintzan leku nabarmena izango zutela agindu zien, era horretan erreginak garbi ikus zezan parte handia zutela horren opari baliotsuan.

Eta espero zuten eguna iritsi zen azkenean. Han zegoen bera, liburua eskuetan zuela, abadesa hainbesteko gogoz prestatu eta saiaturako mintzaldia, erreginak monasterio apal hari hainbeste urtez egindako mesede ugari eta handiak eskertzen eta erreginaren jakituria, debozioa eta zuzentasuna goratzen zituen, errepikatzen ari zen bitartean. Isabel erregina, berak baizik erabiltzen ez zuen aulki zizelatuan eserita, eta gorteko andreak, mojak eta oparian parte hartu zuten andre nagusiak inguruan zituela, begirada aretoko leku galduren batean pausatuta zeukala ari zen entzuten. Aldian behin, oso aldi behin eta une labur batez, begiak liburuan eta gero haren egilearengan pausatzen zituen. Moja gazteari mila urte iruditu zitzaizkion mintzaldiak iraun zituen minutu labur haiek. Eskuak hezetuta zeuzkan, eta ikara arin batek inarrosen zion gorputz osoa, oinetatik bururaino.

—...eta utz diezagu Zure Maiestate horrek, gure apaltasun guztiaz, berorri diogun jaiaren erakusgarritzat opari apal hau eskaintzea...